



**2023KO EKAINAREN 26KO  
EZ-OHIKO OSOKO BILKURA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hogeitahiruko ekainaren hogeita seian, arratsaldeko sei eta erdietan, Lazkaoko Udal Osoa bildu da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Kepa Zubiarrain Erauskin Alkatearen lehendakaritzapean, ezohiko batzaraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Aitor Altuna Oiarbide, Amagoia Naldaiz Mingo, Eneritz Miranda Muxika, Aritz Goikoetxea Gonzalez de Audicana, Unbe Etxaniz Perez, Josetxo Sese Eztala, Joxemai Ormazabal Sukia, Egoitz Bergara Azpirotz, Maialen Amundarain Irizar eta Carolina Agirre Mastrangelo.

Idazkari lanetan Idoia Garmendia Callejak dihardu.

**I.- 2023KO UZTAILAREN 23AN EGINGO DIREN GORTE NAGUSIETARAKO HAUTESKUNDE MAHAJETARAKO MAHAIKIDEAK AUKERATZEKO ZOZKETA.-**

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, Eguneko Gai Zerrendako puntu bakarrari ekin zaio, 2023ko uztailaren 23an egingo diren Gorte Nagusietarako Hauteskundeak direla eta Hauteskunde Mahaietako partaideak aukeratzeko zozketari hain zuzen ere, Hauteskundetako Erregimen Orokorreko Lege Organikoaren 26.4 artikulua xedatutakoaren arabera.

Zozketa, Instituto Nacional de Estadística erakundearen IDA-Celec plataformaren bidez egin da, datuak Lazkaoko hautesle zentsutik hartu dira, Instituto Nacional de Estadística erakundeak bidalitako datuetatik hain zuzen.

Zozketaren ondoren Lazkaoko Udalerrian eratuko diren 6 mahaietarako presidente eta bokalak aukeratu dira, titular nahiz ordezkioak, hauen datuak horretarako prestatutako orrietan jaso direlarik.

**II.- BILERAREN AMAIERA.-**

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jo du arratsaldeko seiak eta hogeita hamabost direnean, nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.